

Bilboko Arte Eder Museoko tapizak

Francisco Tonsek Pastranan zeukan tailerreko pieza berriak



Margarita García Calvo

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao:

1., 2., 6., 7., 8., 10., 11. eta 12. ir.

© Christie's Images Ltd., London: 3. eta 4. ir.

© Paradores de Turismo: 9. ir.

Argitalpena:

B'05 : Buletina = Boletín = Bulletin. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 1. zenb., 2006, 67.-90. or.

Babeslea:



Bilboko Arte Eder Museoak hiru tapiz dauzka. 1953. urtean, Manuel de Taramonaren alarguna zen Mercedes Basabe y Cotonerek eman zizkion dohaintzan. Testamentuan, senarraren berariazko borondatea betetzeko asmoz, museoari utzi zion arte-lanen eta objektu artistikoen legatu handia. Dohaintza bera, hain zuzen ere, hildakoaren neba zen Luis Basabe y Cotonerek egin zuen.

Euretako bi Pastranan (Guadalajaran) ehundu zituzten, hiribilduko III. dukea zen Ruy Gómez de Silva de Mendoza y de la Cerda jaunak (1596-1626) Alcarriako udalerrian sustatutako tailerrean. Flandesko François Tons (1576-1633) tailerreko zuzendari izendatu zuen, eta, laster, izena espainieratu zuen¹.

Bruselan jaio zen, XVI. mendeko lehen zatitik kartoi meheak ehundu eta diseinatzen zituen familia batean. 1613. urtean bertan, hiribilduko ehule garrantzitsuenetakoa zela zioten². Bruselan egindako lanetatik, honako adibide hauek gordetzen dira: *San Pauloren bizitza* laneko hiru oihal (Pinacoteca Fabrianon) edo antzinako batailaren eszena irudikatzen duen oihala (The Detroit Institute of Arts-en). Ez dakigu zergatik, baina Espainiara emigratzeko erabakia hartu eta Felipe IV.a erregeari eskatu zion Pastranan finkatzeko baimena. Seguruenik, Ruy Gómezek berak iradokitako eskaera izan zen. Hala ere, ez dakigu nola jarri ziren harremanetan.

Pastranan egindako bi tapizok gaur egun barreiatuta eta osatu gabe dagoen *Basoko animaliak* serieko osagaiak dira. Multzoko gainerako piezetan gertatzen den bezala, piezaren erdialdean garatzen den ekintzaren arabera jarriko diegu izena: *Lehoia ibaiertzean* [1. ir.] eta *Lehoinabarra oreina hiltzen* [2. ir.]. Oso interesgarriak dira, balio artistiko handia dutelako eta Alcarriako manufakturako oso adibide gutxi aurkitu direlako gaur arte: Tonsen eta/edo Pastranako tailerreko markak daramatzaten zazpi pieza gehi bertakoa omen den beste pieza bat, bai eta hiriko zein tailerreko markak dituzten bi oihal «berriok» ere.

1 Pastranako manufakturaren sorrerarako eta jarduerarako, ikus Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985; García Calvo 1995, 130.-171. eta 182.-291. or.

2 Delmarcel 1999, 369. or.



1. *Lehoia ibaiertzean*

Pastranako marka eta Francisco Tonsen monograma, c. 1622-1626

415 x 455 cm

Bilboko Arte Eder Museoa



2. *Lehoinabarra oreina hiltzen*
Pastranako marka eta Francisco Tonsen monograma, c. 1622-1626
421 x 504 cm
Bilboko Arte Eder Museoa

Hirugarrena XVII. mendeko azken laurdenean ehundu zuten seguruenik, Flandesko tailer batean, hain zuzen ere. Bertan, Troiako gerrako pasartea irudikatuta dago: *Eneas Troiatik ihesi Ankises aitarekin eta Askanio-rekin* [fig. 11].

Pastranako manufacturaren sorrera eta ekoizpena

Lehen esan dugunez, hiribilduko III. dukeak sustatu zuen tailerra. Izan ere, horren inguruko testigantza literario interesgarriak daude. Horra hor Andrés de Almansa Mendoza kronikariak eskainitakoa. Bertan adierazten duenez, Corpuseko jaia dela eta, 1623. urtean, Madrilen, Pastranako dukeak «hizo exponer un dosel nuevo, de seda, plata y oro, el mejor que desta calidad se ha visto, hecho en el nuevo obraje que ha traído a su villa de Pastrana el duque, para emulación de chinos y flamencos, pues se han hecho allí algunas tapicerías, las mejores que dicen se hallan en Europa»³.

Artxiboetan ikertutako agiriak kontuan hartuta, dukeak berak diruz laguntzen zuen tailerra, tapizak ehuntzeko lehengaien erosketarako fondoak aurreratzen zituen, Tonsen eta berarekin lan egiten zuten flandestarren soldatak ordaintzen zituen eta, horrez gain, etxebizitzak eskaintzen zizkien udalerrian bertan.

Beste ehule herrikide batzuen antzera, Tonsek atzerrira joateko erabakia hartu zuen garai horretan⁴ 1622. urtean, hain zuzen ere, Pastranan finkatuta zegoen bere ofizialekin, eta dukeak eskainitako etxebizitzetan bizi ziren. Bere esanetan, Espainian bertan «el arte de hacer tapicerías de todas suertes [...]» zabaltzeko asmoz etorri zen. Besteak beste, 1621eko urtarrilean, arrazoi hori azaldu zuen Felipe IV.ari Pastranan finkatzen uzteko idatzi zion eskabide-agirian. Eskabide horretan⁵, udalerrri hori zergatik aukeratu zuen azaltzen zuen: «[...] tiene noticia que en la villa de Pastrana en el reyno de Toledo cerca de la corte de V. Magd. ay comodidades de buenos tintes, por las aguas, que halli se labra la seda que es lo mas necesario para su arte, demas de otras comodidades que tiene la tierra». Era berean, zehaztu egiten zuen zer baldintzapetan etorriko zen lanera Espainiako erresumetara: hogeita hamar urtean Espainian inork ezin zuen tapizik egin, berak eta bere ofizialek izan ezik. Horrez gain, «de labor de tapizerías de Bruselas y de otras partes» Pastranan baino ez dira egingo, ez dute zergarik ordainduko eta doako etxebizitzak emango dizkiete hiribilduan, lan egiteko eta bizitzeko. Segoviako artileak eta beste material batzuk ohiko prezioetan salduko dizkiete. Hamabi urtez lanean egon ondoren eta manufacturaren jarraipena finkatuta utzi ondoren, bere herrira itzuli ahal izango da, halaxe nahi izanez gero eta abar. Flandesko Coomansi eta Van der Planckeni antzeko pribilegioak eman zizkieten, Parisko tailerra abian jarri zutenean⁶.

Jarduera handieneko sasoia 1622tik 1626ra artekoa izan zen, urte horietan ekoizpenari buruzko albiste ugari baitaude. Ehundegitik irtendako tapizak hiribilduko jaunaren eskuetara zihoazen. Dukeak berak manufactura diruz lagundu eta sustatu ere egiten zuen. Horrela, bada, 1624ko ekainean, bere ahalegina onetsi zuten Gortean, eta Felipe IV.a erregeak Francisco Tonsi 5.000 dukateko diru-laguntza ordaintzeko agindua eman zuen, Pastranan bertan tailerra jarri zezan. Izan ere, «maestro mejor de hazer tapicerías que trabaja en Pastrana, y ha introducido allí esta obra, de que se espera mucho beneficio á estos regnos [...]». Berrito ere, 1625eko irailean, erregeak Isabel infanteari agindu zion Tonsi eta Flandesko ehuleei zazpi mila dukat ordaintzeko. Izan ere, «[...] que vinieron con él y trabajan en lo mismo, he hecho merced en consideración desto y de lo que gastaron en el viaje que hizieron de esos payses aca, y de la necesidad en que he entendido se hallan, y para que puedan continuar su asistencia en la misma ocupación con mas comodidad y

3 Almansa y Mendoza 1886.

4 Delmarcel 2002.

5 Archivo de Simancas, Cámara de Castilla, legajo 1112. Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985, 92. eta 116. or.

6 Reyniès 2002, 204. or.

descanso, de siete mil ducados por una vez librados en lo que me pertenece de las presas que han hecho, o hizieron los navios de esa Armada [...]»⁷.

Artxiboetan, urte horiei buruzko agiri ugari daude⁸. Eurei esker, jakin badakigu hainbat eta hainbat tapiz Ruy Gómez de Silvaren bilduma zoragarrira joan zirela. Seguruenik, horixe bera gertatu zen *Basoko animaliak* seriearekin. Bilboko Arte Eder Museoak serie horretako bi pieza ditu, bai eta senitartekoen zein lagunen bildumetako beste batzuk ere.

1626ko abenduaren 23an, Pastranako III. dukea hil zen. 1627. urtean, Tonsi eta bere tailerrari buruzko albisteak murriztu egin ziren, harik eta 1628. urtean Pastranako notario-artxiboetatik desagertu arte. Nolanahi ere, Flandesko ehulea hiribilduan bizi izan zen 1633. urtean hil zen arte⁹. 1638. urtean ere, parroikia-artxiboetan, «maestro de flamencos» agertzen zen, eta emakume flandestar baten ehorzketa ordaintzen zuen¹⁰. Hori dela eta, badirudi manufakturak abian jarraitu zuela urte horietan, horren bermea ematen digun agiri-babesik ez badakugu ere.

Alcarriako tailerrak jarduera handia zabaldu zuen. Ez daukagu albiste bat bera ere bertan ehundutako tapiz gehienei buruz, eta hamar dira oihal ezagunak, Bilboko Arte Eder Museoko biak kontuan hartuta. Sarreran adierazi dugun bezala, bilduma horretara erantsi dira. Euretatik, hiru *Armen tapizak* dira. Batean, Diego de Guzmán y Benavidesen armak agertzen dira (Bruselako Musées Royaux d'Art et d'Histoire); bestean, Olivaresko duke-kondea zen Gaspar de Guzmánen armak (Leongo San Marcos Ostatuan); eta hirugarrenean, Silva de Mendoza y de la Cerdaren armak (Museo Cerralbo, Madrid). *Latonaren historia* serietik, bi pieza gordetzen dira: *Juno Latonaren atzetik* (gaur egun, inork ez daki non dagoen) eta *Latona igel bihurtutako laziotarrei begira* (Axel Vervoordt bilduma, Anberes). Biak Berwickeko eta Albako dukearen bildumakoak dira. Amaitzeko, *Basoko animaliak* multzoko bost piezak daude, eta, ondoren, eurei buruz hitz egingo dugu¹¹.

Basoko animaliak (1622-1626)

Horra hor gaur arte gaiari buruz ezagututako hiru tapizei emandako behin-behineko izenburua. Orain, ordea, badakigu bost direla. Aurreko hiruretatik, bik Pastranako eta Francisco Tonsen markak daramatzate: 1969. urtean Milanen saldutako *Tximinoak* [3. ir.] eta 1983. urtean New Yorkeko enkante batean saldutako *Panterak zaldia erasotzen* [4. ir.]¹². Multzoko hirugarren oihalak ez du markarik, baina badakigu zein den, Londresko Victoria & Albert Museumeke Marillier Dokumentazioan gordetako erreprodukzioari esker. *Arranoa arraina harrapatzen* izenburua jarri diogu [5.ir.]¹³.

7 Muntz 1878-1885, 27. or., 1.-2. oharra.

8 Sasoi horretako 180tik gora «cartas de pago» daude Pastranako «Archivos de Protocolos»-en. Lehenengoa 1622ko maiatzekoa da. Bertan, urte horretako apiriletik, Pastranako dukeak, bere administrariaren bidez, Tonsi eman zizkion 5.000 erreale, beretzat eta tapizgintzan lan egiten zuten ofizialentzat. Urte bereko beste gutun batzuetan, Pastranako hiribilduan bizi zen «el maestro de la nueva obra de tapicerías», bruselarrak zenbait diru-kopuru jaso zituen bere lanagatik eta alokairuak ordaintzeko, tindatzaileari ordaintzeko, artile-haria zuritzeko... Horrelako gutun batean, maiatzaren 23koan, 5.180 erreale ordaindu zizkieten, bere eta bere ofizialen gastuetarako. Berrero ere, ekainaren 14an, 6.000 erreale jaso zituen jendearen arraziotarako. Uztailean, 11.711 erreale eman zizkieten zeta tindatzeagatik, artile-haria zuritzeagatik eta orraziak egiteagatik. Bi hilabete geroago, 9.262 erreale eman zizkieten, zeta, «canillas» eta «rodetes» erosteko. Horra hor dukearen hiribilduan egondako lehen urtean jaso zituen diru-kopuru batzuk. 1625. urtean, tailerra buru-belarri ari zen lanean, ia-ia 70 gutun daudelako (asko dira) eta dirutza jaso zuelako. Gutunetan, materialen erosketak, soldadak, dukearen aginduz ehuntzen ari ziren tapizak... agertzen dira. 1626. urtean ere, jarduera bizi-bizia izan zen arren, hurrengo urtean gutuneko kopuruak behera egin zuen eta 1628. urtean desagertu egin ziren. García Calvo 1995, 130.-171. eta 182.-291. or.

9 Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985, 98. or.

10 Ibid., 99. or.

11 Ibid., 103.-114. or.

12 Viale Ferrero 1973, 111. or., 16. ir., «Tximinoen tapiza» argitaratu zuen. «Panterena», salmenta-katalogoan agertu zen, *Fine French and Continental Furniture*, Christie's, New York, 1983ko apirilaren 30ean, 62. or., 136. zenb.

13 *Marillier subject catalogue of tapestries*, vol. Animals, 40; beste garai batean, Londresko Earl of Iveagh bilduman egon zen.



3. *Tximinoak*
Pastranako marka eta Francisco Tonsen monograma
c. 1622-1626
Gaur egun inork ez daki non dagoen



4. *Panterak zaldia erasotzen*
Pastranako marka eta Francisco Tonsen monograma
c. 1622-1626
Gaur egun inork ez daki non dagoen



5. *Arranoa arraina harrapatzen*
 Seguruenik Francisco Tonsen Pastranan zeukan
 tailerrean ehundu zuten, c. 1622-1626
 Earl of Iveagh bilduma zaharra, Londres
 Gaur egun inork ez daki non dagoen

Bi tapiz «berriek», *Lehoia ibaiertzean* eta *Lehoinabarra oreina hiltzen*, hiribilduko marka daramate ezkerreko oihal-ertzean. Hala ere, oso zaila da ikustea, alde horretako ehuna hondatuta dagoelako: P larria dorrearen erdi-erdian (Gaztelako ikur heraldikoa) Gaztelako Pastranako sinbolo bezala [6. ir.]. Eskuineko oihal-ertzean, aldiz, Francisco Tonsen monograma dago ikusgai, hau da, goiko aldean 4 zenbakia duten F, S eta T letrak [7. ir.]. Batzuetan, monograma horren beheko aldeko oihal-ertzean, ehulearen izena ere agertzen da.

Jatorrian, Ruy Gómez de Silva sustatzailearenak izango ziren. Dukearen eta bere oinordekoen ondasunen inbentarioak funtsezkoak izan dira, Pastranako ekoizpena nolakoa zen jakiteko. Euren bidez, Pastranan ehundutako eta gaur egun desagertutako multzoak egon direla jakin dugu; esate baterako, «cinco panos de la Ystoria de Alexandro [...]», «los centauros de cuatro panos y seis entrebentanas [...]», «fabulas y Ranas [...]»¹⁴.

Ohikoa denez, bost tapizetan mendel bera erabili da. Akanto-hostozko banda dauka, eta azalera osoa zeharkatzen du. Zartek eta maskarioiek monotonia hausten dute, bai eta mendelen erdialdean zein angeluetan ikusgai dauden eta barruan herri-irudiak dituzten medailoiek ere [8. ir.].

14 Catalina Gómez de Sandoval y Mendozaren hileta-inbentarioa, 1868. urtean egindakoa. Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985, 120. or., 11. eranskina.



6. Lehoia ibaiertzean
Bilboko Arte Eder Museoa
Pastranako hiribilduko marka



7. Lehoia ibaiertzean
Bilboko Arte Eder Museoa
Francisco Tonsen monograma

Antzeko mendelak daude XVII. mendeko lehen laurdeneko Frantziako tailerretan ehundutako piezetan. Horra hor *Artemisaren historia* eta *Coriolanen historia*. Francois de la Plancheren manufakturakoak dira. Ehule hori Audenardekoa zen, eta, Tonsek Espainiara egin zuen bezala, Frantziara emigratu zuen. Era berean, Bruselan garai berean egindako tapizetan ere azaltzen dira antzeko mendelak. Horra hor Jean Raesen eta Jacques Geubels II.aren *Jauregien eta lorategien ikuspegiak*; Patrimonio Nazionalarenak izan ziren eta Espainiak Lisboan zeukan Enbaxadaren sutean desagertu ziren¹⁵; sinadura bereko *Neuf Preux*, edo Jean Raesen, Jacques Geubels II.aren eta Nicaise Aertsen tailerretan ehundutako *Troiako historia*¹⁶.

Bestetik, Tonsek *Basoko animaliak* multzoan erabiltzen dituen mendelak eta Diego de Guzmánen zein Olivaresko duke-kondearen bi arma-tapizetan agertutakoak berdin-berdinak dira [9. ir.].

Serieko floraren eta faunaren inspirazio-iturriak XVI. mendeko ereduak dira¹⁷. *Tximinoak* Anberesko Van Aelsten tailerreko errinozerontearen marrazki ospetsuaren ezkeraldea da. *Arranoa arraina harrapatzen*, berriz, Borromeo printzeen jabetzako eta Isola Bella uhartean gordetako *La Licorne* serieko zazpi oihaletako baten eskuinaldearen kopia alderantzikatua da. Bruselan bertan ehundu zuten XVI. mendearen erdialdean, eta Francisco Tonsen aitona-osaba zen Guillermo Tonsek egin omen zituen paisaiok¹⁸. Aldi berean, *Animaliadun paisaiak* gaiari buruzko multzo garrantzitsuena aipatu beharra dago, Krakoviako Waweleko gaztelukoa, alegia¹⁹. Berrogeita lau pieza

15 Junquera 1976, 14.-17. or.

16 Viale Ferrero 1981.

17 Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985, 107.-108. or.

18 Delmarcel 1999, 369. or.

19 Szablowski 1972, 191.-286. or.



8. *Lehoia ibaiertzean*
Bilboko Arte Eder Museoa
Herriirudidun medailoia



9. *Olivaresko duke-kondea zen Gaspar de Guzmánen armak*
Pastranako marka eta Francisco Tonsen monograma, c. 1622
Parador Hostal de San Marcos, León

dira, eta, bertan, animalien arteko borroka daude ikusgai. Hori dela eta, badirudi Kristorekin edo giza ari-
marekin zerikusia duen esangura alegorikoa daukatela. Horra hor *Pugnae Ferarumak* edo Borromeo printzeen
*Animalia basatien arteko borroka*²⁰.

Guy Delmarcelek iradokitakoaren arabera, badirudi Tonsek euren arbasoen diseinuak erabili zituela Pastra-
nako *Basoko animaliak* seriea egiteko; esate baterako, Guillermo aitona-osabarenak edo Jean Tons birrai-
tonarenak²¹. Bilboko Arte Eder Museoko bi tapizak kontuan hartuta, egiaztatu egiten omen da lotura estua
dagoela orain arte ezagututakoen eta Isola Bellakoen zein Wawelekoen artean.

Lehoia ibaiertzean tapizean erabilitako eredia (bietatik ondoen dagoena da) eta *La Licorne* serieko lehenengo
tapizekoa oso-oso antzekoak dira. Lehenengo tapiz hori, gainera, naturaren jatorrizko ontasunaren irudikape-
na da²². Hala ere, eredu hori alderantzikatuta dago, murriztu egin da zabaleran, eta, aldi berean, zenbait
aldaketa daude bertan agertzen diren animaliei dagokienez. Palmondo handia nagusi den paisaia hosto-
tsuan, harmonian omen dauden animaliak agertzen dira, eta, piezaren erdi-erdian, ibai ondoan dagoen le-
hoia nabarmentzen da (10. ir.). Bertan, arrainak eta ahateak ari dira igerian, eta badirudi ez direla lehoiaren
nahiz ezkerreko muskerraren beldur. Gauza bera gertatzen da ibaiertzeko lertxunekin.

Lehoinabarra oreina hiltzen tapizak ere Waweleko *Animaliadun paisaiak* bildumako *Lehoinabarra hartzarekin*
borrokan oihala dakarkigu gogora, animalien tratamendua zein den eta nola dauden jarrita kontuan hartuta²³.
Eskuinaldean lehoinabarrak oreina hiltzen duen bitartean, ezkerrean dagoen beste batek kumeei ematen
die titia, eszenari begira dagoela. Atzeko aldean, llama dago ikusgai, eta antzekotasun handia dauka Krako-
viako Waweleko bilduma bereko *Llama eta ganadua bazkatzen* oihalaren eskuinaldean azaltzen denarekin²⁴.

20 Roethlisberger 1967.

21 Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985, 108. or.

22 Roethlisberger 1967, 86-88. or.; Viale Ferrero 1973, 77.-81. or.

23 Szablowski 1972, 214.-218. or.

24 Ibid., 244.-248. or.



10. *Lehoia ibaiertzean*
Bilboko Arte Eder Museoa
Xehetasuna

Troiako gerra: *Eneas Troiatik ihesi Ankises aitarekin eta Askanioarekin*

Eneas Afrodita jainkosaren eta Idako artzaina zen Ankisesen harremanaren ondorioz jaio zen. Mendian hazi zen, eta, bost urte zituela, aitak Troiara eraman zuen. Bertan hazi zen, harik eta Troiako buruzagietako bat izan arte. Troiako gerran, Greziako heroi nagusien aurka borrokatu zen. Hiria eroritakoan, Ankises aitarekin, Askanio semearekin eta jainko penateekin ihes egin zuen bertatik. Hori dela eta, «gupidatsua» epitetoa jarri zioten Eneasi.

Eneasen bizitzako pasarte hori seme-alaben gupidaren adierazpidea da²⁵, eta, tapizean bertan, ezin hobeto islatzen da: eszenaren erdi-erdian, Eneasek adineko aita darama bizkarrean. Alboan, Askanio semea eta Troiatik ihesi Eneasen atzetik joateko erabakia hartu duten guztiak doaz. Ezkerraldean, greziarrek sunsitutako Troia agertzen da sutan. Segizio horretan, ez da Kreusa emaztea azaltzen, hiritiko ihesaldi ikaragarrian desagertu zen eta. Virgiliok, Eneidan, xehetasun handiz azaldu zuen ihesaldi hori (II. liburua, 704-805). Ihesaldi horretan, «leku guztietatik agertu eta aderez zein baliabidez beterik nire atzetik edonora joateko prest zeuden guztiak» azaltzen dira (II. liburua, 798-800).

Troiako kondairak arrakasta handia izan zuen azken mendeetako artean. Tapizetan bertan ere, halaxe gertatu zen. Zenbait serie dira ezagunak, eta batzuek hedapen handia izan zuten euren garaian. Horra hor seguruenik 1470. urtean Tournain ehundu zituzten Troiako oihalak. Gaur egun, besteak beste, Zamorako katedralean daude gordeta, eta euren edizio asko egin zituzten²⁶. Hurrengo mendeetan, Flandesko zenbait gunetan, Bruselan edo Audenarden, gai horri buruzko multzoak egin zituzten, eta Frans Geubelsen, Jean Raesen eta Catherine van den Eynderen edo Martin Reynboutsen tailerretan ehundu zituzten.

25 Alciato (1531) 1985, 238. or., 194. ikurra.

26 Asselberghs 1999, 43.-218. or.



11. *Eneas Troiatik ihesi Ankises aitarekin eta Askanioekin*
 Flandesko tapiza, XVII. mendeko azken laurdenean ehundu zuten, 329 x 503 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa

Bilboko Arte Eder Museoko oihalean irudikatutako pasarteak pinturan zein eskulturan agertzen da behin baino gehiagotan. Dena den, eskulturakoak bertakoak dira adibide ezagunenak. Erromako Augustoren Foroan, II. mendeko eskultura-multzoa dago, eta, bertan, Troiatik ihesi doan Eneas dago ikusgai. Eneasek Ankises aita darama sorbaldan, eta, Askanio semea, eskutik helduta. Beste adibide ospetsuetako bat Berninirena dugu (Galleria Borghese, Erroma). Era berean, XVII. mendean, Antonio Tempesta grabatugilearen estampa batean eta Gian Francesco Romanelliren margolan batean (Galerie Mazarine, Bibliothèque Nationale de France, Paris) agertzen da eszena hori. Tapizeriari dagokionez, pasarte hori antzeko konposizioan (kartoi mehea desberdina bada ere) azaltzen da XVI. mendearan amaieran Bruselan egindako eta Madrileko bilduma partikular batean gordetako piezan²⁷. XVII. mendean, Aubussonen ehundu zuten *Didoren eta Eneasen historia*, eta gai berari buruzko tapiza agertzen da bertan. Erabilitako ereduak Isaac Moillon margolariak (1614-1673) egin zituen, eta, horrez gain, Frantziako manufactura ospetsuan egindako oihal askoren diseinuak ere egin zituen²⁸.

Lehen esan dugunez, Flandeskoa da, baina hiriko edo tailerreko markarik ez daukanez, ez dago manufacturagune zehatz batekoa dela esaterik. Beharbada, ez dago ehundegiari edo ehuleari buruzko markarik, tapizaren inguruko oihal-ertza eranskina izan daitekeelako, eskuineko alboa izan ezik, eta markak alde horretan joaten zirelako. Hain zuzen ere, une horretako eta beste sasoi batzuetako tapiz ugari egoera berean heldu zaizkigu.

Bestetik, mendelak osagai garrantzitsuak dira sailkapen kronologikoa egiteko orduan, garai bakoitzean eredu jakin batzuk direlako nagusi. Tapiz honen mendel ikusgarriak [12. ir.] era guztietako loreak ditu (arrosak, bitxiloreak, tulipak), atzeko alde gorria da tarte batzuetan, eta lotutako xingola ugari daude. Mendel hori,

²⁷ Ibid., 216. or.

²⁸ Aubusson 2005, 202.-204. or.



12. *Eneas Troiatik ihesi Ankises aitarekin eta Askanioarekin*
Bilboko Arte Eder Museoa
Mendelaren xehetasuna

gainera, XVII. mendeko azken laurdenean Audenarden paisaiari buruz ehundutako oihaletan agertzen da²⁹. Audenarde, hain zuzen ere, Flandesko ekoizpen-gune garrantzitsua izan zen XV. mendetik, harik eta XVIII. mendean gainbehera egiten hasi zen arte. Edonola ere, azpa-mota jakin bat erabiltzea ez da arrazoi nahikoa pieza bat leku zehatz batekoa dela esateko. Audenarden bertan, Bibliako, Antzinaroko eta «berduretako» gaiei buruzko tapiz ugari ehundu bazituzten ere, hiriko marka agertzea izango litzateke bertakoa dela esateko irizpide bakarra.

29 Van De Meüter/Vanwelden 1999, 204.-207. or.

BIBLIOGRAFIA

Alciato (1531) 1985

Alciato. *Emblemas*. Santiago Sebastián (arg. eta iruzkinak). Madrid : Akal, 1985 (1. ed., Augsburg, 1531).

Almansa y Mendoza 1886

Andrés de Almansa y Mendoza. *Cartas de Andrés de Almansa y Mendoza : novedades de esta Corte y avisos recibidos de otras partes (1621-1626)*. Colección de libros españoles raros ó curiosos ; 1. Madrid : [s.n.], 1886 (Miguel Ginesta).

Asselberghs 1999

Jean Paul Asselberghs. *Los tapices flamencos de la Catedral de Zamora*. Santiago Samaniego (arg.). Salamanca : Caja Duero, 1999.

Asselberghs/Delmarcel/García Calvo 1985

Jean Paul Asselberghs ; Guy Delmarcel ; Margarita García Calvo. «Un tapisserieur bruxellois actif en Espagne : Francois Tons», *Bulletin des Musées Royaux d'Art et d'Histoire de Bruxelles*, 56-2. libk., 1985, 89.-121. or.

Aubusson 2005

Isaac Moillon (1614-1673) : un peintre du roi à Aubusson. [Erak. kat., Aubusson, Musée départemental de la tapisserie]. Nicole de Reyniès ; Sylvain Laveissière (zuz.). Paris : Somogy ; Aubusson : Musée départemental de la tapisserie, 2005.

Delmarcel 1999

Guy Delmarcel. *La tapisserie flamande : du XVe au XVIIIe siècle*. Paris : Impr. nationale, 1999.

Delmarcel 2002

—. «Flemish tapestry weavers abroad : an introduction», *Flemish tapestry weavers abroad : emigration and the founding of manufactories in Europe : proceedings of the International Conference held at Mechelen, 2-3 October, 2000*. Leuven : Leuven University Press, 2002, 9.-12. or.

García Calvo 1995

Margarita García Calvo. *Tapices de Pastrana*. UNED, 1995 (argitaratu gabeko doktore-tesia).

Junquera 1976

Paulina Junquera. «Obras de arte del Patrimonio Nacional en la Embajada de España en Lisboa», *Reales Sitios*, XIII, 13. libk., 47. zenb., 1976, 14.-17. or.

Muntz 1878-1885

Eugène Muntz. «Histoire de la tapisserie en Italie», *Histoire générale de la tapisserie*, 2. libk. Paris : Société anonyme de publications périodiques, 1878-1885.

Reyniès 2002

Nicole de Reyniès. «Les lissiers flamands en France au XVIIe siècle, et considérations sur leurs marques», *Flemish tapestry weavers abroad : emigration and the founding of manufactories in Europe : proceedings of the International Conference held at Mechelen, 2-3 October, 2000*. Leuven : Leuven University Press, 2002, 203.-226. or.

Roethlisberger 1967

Marcel Roethlisberger. «La tecture de la licorne dans la collection Borromée», *Oud Holland*, 82. zenb., 1967, 85.-115. or.

Szablowski 1972

Jerzy Szablowski (arg.). *Les tapisseries flamandes au château du Wawel à Cracovie*. Anvers : Fonds Mercator, 1972.

Van De Meûter/Vanwelden 1999

Ingrid Van De Meûter ; Martine Vanwelden. *Tapisseries d'Audenarde du XVIe au XVIIIe siècle*. Tielt : Lannoo, 1999.

Viale Ferrero 1973

Mercedes Ferrero Viale [sic.]. «Quelques nouvelles données sur les tapisseries de l'Isola Bella», *Bulletin des Musées Royaux d'Art et d'Histoire de Bruxelles*, 45. libk. [Actes du colloque international L'art brabançon au milieu du XVIe siècle et les tapisseries du château du Wawel à Cracovie, 14-15 décembre 1972], 1973, 77.-142. or.

Viale Ferrero 1981

—. «Quatre tapisseries inédites de l'Histoire de Troie», *Artes Textiles*, X. libk., 1981, 183.-192. or.